Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

añarbe
aguas urak

# CONVENIO DE COLABORACIÓN PARA LA FINANCIACIÓN DE LAS OBRAS DE EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE MEJORA PARCIAL DEL SANEAMIENTO DEL BARRIO DE OKENDOTEGI

En San Sebastián a 9 de junio de 2015

## REUNIDOS

Don Iñigo Ansola Kareaga, en calidad de Director General de URA, Uraren Euskal Agentzia/Agencia Vasca del Agua (en lo sucesivo URA), y en virtud de la atribución que le confiere el artículo 7.2 g) de los Estatutos de dicha entidad.

Don Ricardo Burutaran Ferré. Interviene en su condición de Concejal Delegado de Vivienda y Urbanismo, en nombre y representación del Ayuntamiento de Donostia, facultado para este acto por delegación de la Junta de Gobierno Local de 22 de mayo de 2015.

Y de otra, Don Enrique Noain Cendoya, Presidente del Consejo de Administración de Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A. (en lo sucesivo "AGASA"), sociedad pública de gestión de la Mancomunidad de Aguas del Añarbe, en nombre y representación de la citada Sociedad, y debidamente facultado para ello por acuerdo de su Consejo de Administración de 1 de junio de 2015.

[redacted]

Reconociéndose los comparecientes capacidad jurídica y legal suficiente para formalizar y suscribir el presente documento, así como para obligarse en su contenido en las respectivas representaciones con las que intervienen, exponen los siguientes

## ANTECEDENTES

**Primero.-** A lo largo de los últimos años se ha constatado la recurrencia de episodios de inundación en la zona de Okendotegi, zona donde existen una serie de edificaciones de carácter residencial al sur del término municipal de San Sebastián y en la inmediata proximidad de su límite con los municipios de Astigarraga y Hernani. De esta circunstancia se ha hecho eco la Comisión Interinstitucional para la prevención de inundaciones en el Urumea.

[redacted]

**Segundo.-** En el seno de la Comisión Interinstitucional se citó la posibilidad de que eventuales disfunciones en la explotación de la EBAR (Estación de bombeo de aguas residuales) Muntogorri, de titularidad de AGASA dentro de su sistema de saneamiento en alta Urumea, pudieran haber coincidido en alguna ocasión con los episodios d[redacted]

inundación recientemente acaecidos. Lo que recomienda una mejora del dispositivo de saneamiento en alta del barrio de Okendotegi y la citada EBAR Muntogorri.

**Tercero.-** En reunión celebrada por la Comisión Interinstitucional para la prevención de inundaciones en el Urumea, se asumió por URA la responsabilidad de redactar un estudio sobre el conjunto del sistema de saneamiento del barrio de Okendotegi, en contacto con el Ayuntamiento de San Sebastián y AGASA.

Del resultado de dicha reunión y de las propuestas de mejoras realizadas por los técnicos de AGASA se dedujo la posibilidad de mejora del sistema de alivio de la EBAR Muntogorri, evitando en la medida de lo posible aliviar a través de la red de fecales actual y poniendo en riesgo el sistema en todo su conjunto.

**Cuarto.-** Para ello AGASA ha redactado el "Proyecto de mejora parcial del saneamiento del Barrio de Okendotegi", con un presupuesto de ejecución material de 80.541,75 €. Aplicando a esta cantidad los correspondientes porcentajes de gastos generales (13%) y beneficio industrial (6%), se obtiene un presupuesto de contrata de 95.844,69 €. Así, resulta que el Presupuesto base de licitación asciende a la cantidad de CIENTO QUINCE MIL NOVECIENTOS SETENTA Y DOS EUROS CON SIETE CÉNTIMOS (115.972,07 €). Se propone un plazo de ejecución de las obras de dos meses (2 meses).

**Quinto.-** Los aspectos técnicos se especifican en el "Proyecto de mejora parcial del saneamiento del Barrio de Okendotegi".

**Sexto.-** El presente convenio se suscribe al amparo de los artículos 3, 4, ~~y~~ 6 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común.

## ESTIPULACIONES

**Primera.-** El objeto del convenio se corresponde con la financiación de las obras correspondientes al "Proyecto de mejora parcial del saneamiento del Barrio de Okendotegi".

**Segunda.-** El presupuesto base de licitación ascenderá a CIENTO QUINCE MIL NOVECIENTOS SETENTA Y DOS EUROS CON SIETE CÉNTIMOS (115.972,07 €). Asimismo, el plazo de ejecución de las obras será de dos meses (2 meses).

**Tercera.-** Corresponderá a AGASA gestionar con Adif, o en su caso con ETS, la disponibilidad de los terrenos donde se ejecutarán las obras.

[redacted]

**Cuarta.-** Corresponderá a AGASA la licitación, adjudicación y dirección de las obras, dando cuenta al resto de las partes intervinientes del presente convenio.

**Quinta.-** Respecto a la financiación de las obras, URA se hará cargo de 1/3, (38.657,36 €,), el Ayuntamiento de San Sebatián se hará cargo de otro 1/3 (38.657,36 €, IVA incluido), y AGASA del otro 1/3 (38.657,35 €, IVA incluido).

El compromiso de financiación de las obras estará supeditado a la existencia previa de las oportunas consignaciones presupuestarias.

**Sexta.-** El compromiso de financiación se extiende únicamente al pago del coste real y definitivo de las obras; es decir, de producirse ahorros como consecuencia de una eventual baja producida en el proceso de licitación y adjudicación de las mismas; o sobrecostes debidos a imprevistos acaecidos durante su ejecución, la aportación de cada parte se atendrá a la liquidación final de los trabajos, en las proporciones establecidas en la cláusula quinta del presente convenio, esto es, a tercios.

Así, en el supuesto de que el coste final de la actuación resultara superior o inferior al estipulado en la cláusula segunda del presente convenio, por AGASA se procederá a repartir el sobrecoste o el ahorro producidos entre las tres partes signatarias del mismo a partes iguales.

**Séptima.-** En cuanto a la forma de pago el adjudicatario girará la correspondiente certificación mensual que será aprobada por AGASA, tras lo cual, emitirá tres facturas dirigidas, respectivamente, a cada una de las partes.

**Octava.-** El presente convenio es de naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el ordenamiento jurídico-administrativo aplicable a los convenios de colaboración entre Administraciones Públicas.

**Novena.-** Las partes se obligan a la constitución de una comisión de seguimiento de la actuación, compuesta por un representante de cada una de las partes, y de su correspondiente suplente, y encargada de supervisar el conjunto de la actuación, así como de garantizar la debida comunicación y transparencia de todos los trámites y actuaciones que requiera el desarrollo del convenio. La comisión será presidida por el representante de URA. El representante de cada parte, así como su suplente o persona en quien delegue, será designado por el respectivo órgano competente para ello.

Las reuniones de la comisión tendrán lugar en el Ayuntamiento de San Sebastián, y su periodicidad, régimen de reuniones, convocatoria, etc. serán arbitrados por su Presidente.

La resolución de los problemas de interpretación que puedan plantear el presente convenio o su ejecución, serán resueltos por la comisión de seguimiento, según lo referido en la cláusula anterior; si no fuera posible, se estará a lo dispuesto en [redacted]

artículo 8.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

El incumplimiento por alguna de las partes de los compromisos asumidos facultará a las otras para solicitar la resolución del convenio. En caso de resolución, las partes determinarán las condiciones para la finalización y pago de las obras que se hallen en ejecución. Además, la parte causante de dicha resolución deberá indemnizar todos los daños y perjuicios que se hayan causado tanto a la otra parte como a terceros de buena fe.

**Décima.-** El convenio no supondrá renuncia ni alteración de las competencias de las partes que intervienen, que asumen únicamente las responsabilidades inherentes a los compromisos que contraen en virtud del mismo.

El convenio surtirá efecto y obligará a las partes intervinientes desde su firma y, durará hasta el pago de la liquidación de la contratación de las obras para su ejecución.

**Undécima.-** El convenio se extinguirá por el transcurso del plazo de vigencia, referido en la cláusula anterior o por resolución.

**El Director General de la Agencia Vasca del Agua**

ZUZENDARI NAGUSIA
ura ur agentzia agencia vasca del agua
DIRECTOR GENERAL

[redacted]

**Iñigo Ansola Kareaga**

**El Concejal Delegado de Vivienda y Urbanismo del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián
Hirigintza Zuzendaritza
Dirección de Urbanismo

[redacted]

**Ricardo Burutaran Ferre**

**Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.**

[redacted]

añarbe aguas urak
AGUAS DEL AÑARBE
AÑARBEKO URAK, S.A.

**Enrique Noain Cendoya**

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

ura
ur agentzia
agencia vasca del agua

añarbe
aguas urak

# LANKIDETZA HITZARMENA, OKENDOTEGI AUZOKO SANEAMENDUA PARTZIALKI HOBETZEKO PROIEKTUA GAUZATZEKO LANEN FINANTZAKETARAKO DENA

Donostia, 2015eko ekainaren 9

## BILDUTAKOAK

Iñigo Ansola Kareaga, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusi gisa (aurrerantzean, URA), erakunde horren estatutuetako 7.2 g) artikuluak ematen dion ahala erabiliz.

Ricardo Burutaran Ferre, Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi ordezkari gisa, Donostiako Udalaren izenean, Gobernu Batzarrak 2015ko maiatzaren 22an egintza honetarako emandako eskuordetza baliatuta.

Eta, bestetik, Enrique Noain Cendoya, Añarbeko Urak SA (aurrerantzean, AGASA) Añarbeko Uren Makomunitatea kudeatzen duen baltzu publikoaren Administrazio Kontseiluaren lehendakari gisa, baltzu horren izenean eta ordezkaritzan, Administrazio Kontseiluak 2015eko ekainaren 1an hartutako erabakiaren bidez emandako ahala erabiliz.

Izenpetzaileek behar besteko gaitasun juridiko eta legala aitortu diote elkarri honako dokumentu hau formalizatu eta izenpetzeko, bai eta bakoitzak duen ordezkaritzaren arabera hitzartutakoa betetzeko ere, eta hauek dira adierazi dituzten

[redacted]

## AURREKARIAK

**Lehenengoa.-** Azken urteotan, behin baino gehiagotan izan dira uholdeak Okendotegi aldean. Inguru horretan bizitegitarako hainbat eraikin daude, Donostiako udal barrutiko hegoaldean eta Astigarraga eta Hernani udalerriekin muga-mugan dagoen aldean, hain zuzen ere. Halaxe adierazi du Urumean uholdeak saihesteko erakunde arteko batzordeak.

**Bigarrena.-** Erakunde arteko batzordean aipatutakoaren arabera, litekeena da Muntogorriko ur hondakinak ponpatzeko estazioak, AGASAren titulartasunekoak, Urumeako altako saneamendu sistemaren barruan izan dituen disfuntzioak batera gertatu izana duela gutxi izan diren uraldiekin. Hori dela eta, komeni da Okendotegi auzoko altako saneamendu sistema eta aipaturiko Muntogorriko hondakin urak ponpatzeko estazioa hobetzea.

**Hirugarrena.-** Urumean uholdeak saihesteko erakunde arteko Batzordeak egindak[redacted] bileran, URAk bere gain hartu zuen Okendotegi auzoko saneamendu sistema osoari

buruzko azterlan bat idazteko ardura, Donostiako Udalarekin eta AGASArekin harremanetan egonda betiere.

Bilera horretatik eta AGASAko teknikariek egindako hobekuntza proposamenetatik ondorioztatu zen badagoela Muntogorriko hondakin urak ponpatzeko estazioko gainezkabidea hobetzeko aukera. Horrela, ahal den neurrian, saihestu egingo da ur zikinen egungo sarearen bidez egitea gainezka eta sistema osoa arriskuan jartzea.

**Laugarrena.-** Horretarako, AGASAk "Okendotegi auzoko saneamendua partzialki hobetzeko proiektua" idatzi du; proiektu hori gauzatzeko aurrekontua 80.541,75 € da. Zenbateko horri gastu orokorrak (% 13) eta industria mozkina (% 6) aplikatuta, kontrataren aurrekontua 95.844,69 euro da. Hala, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua EHUN ETA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (115.972,07 €) da. Obrak egiteko bi hilabeteko epea (2 hilabete) izatea proposatu da.

**Bosgarrena.-** Alderdi teknikoak Okendotegi auzoko saneamendua partzialki hobetzeko proiektuan datoz zehaztuta.

**Seigarrena.-** Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3., 4. eta 6. artikuluak eta hurrengoak oinarri direla sinatu da hitzarmen hau.

## AKORDIOAK

**Lehenengoa.-** Hitzarmen honen helburua da Okendotegi auzoko saneamendua partzialki hobetzeko proiektuari dagozkion obrak finantzatzea.

**Bigarrena.-** Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua EHUN ETA HAMABOST MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (115.972,07 €) da. Horrez gain, obrak egiteko bi hilabeteko epea (2 hilabete) izango da.

**Hirugarrena.-** AGASAk kudeatu beharko du Adif-ekin, edo hala badagokio ETSrekin, zer lur erabil daitezkeen obrak egingo diren aldean.

**Laugarrena.-** AGASAren ardura izango da obrak lizitatzea, esleitzea eta zuzentzea, eta hitzarmen honetan parte hartu duten gainerako alderdiei horren berri eman beharko die.

**Bosgarrena.-** Obren finantzaketa dela eta, URA heren baten kargu egingo da (38.657,36 €), Donostiako Udala beste heren baten kargu egingo da (38.657,36 €, BEZa barne) eta AGASA beste herenaren kargu (38.657,36 €, BEZa barne).

[redacted]

Obrak finantzatzeko konpromisoa aurrekontuetan behar diren diru izendapenak izatearen mende egongo da.

**Seigarrena.-** Finantzatzeko konpromisoa obren kostu erreal eta behin betikoa ordaintzeko izango da soil-soilik; hau da, obrak lizitatzeko eta esleitzeko prozesuan beherapenen bat izan bada eta horren ondorioz aurrezkirik sortu bada edo obrak egitean ustekaberen bat izan bada eta horren ondorioz gainkosturik izan bada, lanen azken kitapenaren arabera egokituko da alderdi bakoitzaren ekarpena, hitzarmen honetako bosgarren klausulan ezarritako proportzioan, hau da, heren bana eginda.

Hala, jardueraren azken kostua hitzarmen honetako bigarren klausulan ezarritakoa baino handiagoa edo txikiagoa bada, AGASAk zati berdinetan banatuko du, hiru alderdi sinatzaileen artean, izandako gainkostua edo aurrezkia.

**Zazpigarrena.-** Ordaintzeko moduari dagokionez, esleipendunak hileko ziurtagiri bat bidaliko du. Ziurtagiri hori AGASAk onartu beharko du, eta, horren ondoren, hiru faktura egingo ditu, alderdi bakoitzarentzako bat.

**Zortzigarrena.-** Hitzarmen hau administrazio izaerakoa da. Hitzarmen hau interpretatu eta garatzeko, herri administrazioen arteko lankidetza hitzarmenei aplikatzen zaien lege eta administrazio antolamenduari jarraituko zaio.

**Bederatzigarrena.-** Alderdiek jardueraren jarraipen batzorde bat eratuko dute, alderdi bakoitzeko ordezkari batek eta haren ordezkoak osatua. Batzorde horren ardura izango da jarduera guztia gainbegiratzea, bai eta hitzarmena garatzeko egin beharreko izapide eta jarduera guztiak behar bezala komunikatzen direla eta behar bezain gardenak direla bermatzea ere. Batzordeburua URAren ordezkaria izango da. Alderdi bakoitzaren ordezkaria, bai eta ordezkoa edo eskuordeduna ere, horretarako eskumena duen organoak izendatuko ditu.

Batzordeak Donostiako udaletxean egingo ditu bilerak eta batzordeburuak erabakiko du zenbatean behin bilduko den, zer eratako bilerak izango diren, deialdiak nola egingo diren eta abar.

Hitzarmen honek edo hitzarmenaren exekuzioak sor ditzakeen interpretazio arazoak Jarraipen Batzordeak konponduko ditu, aurreko klausulak jartzen duen eran. Hori ezinezkoa balitz, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 8.3 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

Alderdietako batek bere gain hartutako konpromisoak betetzen ez baditu, hitzarmena indargabetzea eskatzeko bidea emango dio beste aldeari. Indarrik gabe utziz gero, bi aldeen artean erabakiko dute zer baldintzatan bukatu eta ordainduko diren hasita dauden obrak. Gainera, indargabetzea eragin duen alderdiak dagokien kalte ordaina eman beharko die, egindako kalte eta galerengatik, nola beste alderdiari hala asmo oneko hirugarrenei ere.

[redacted]

**Hamargarrena.-** Hitzarmen honek ez du ekarriko alderdi parte-hartzaileek dituzten eskumenei uko egitea, ez eta haiek aldatzea ere. Alderdi bakoitzak hitzarmen honi dagozkion konpromisoei atxikitako erantzukizunak bakarrik hartzen ditu bere gain

Sinatzen den unetik aurrera izango du eragina hitzarmenak, une horretatik aurrera behartuko ditu esku hartzen duten alderdiak eta obrak egiteko kontratuaren kitapena ordaindu arte iraungo du.

**Hamaikagarrena.-** Hitzarmen hau aurreko klausulan aipatutako indarraldia iragan delako edo indargabetu egin delako iraungiko da.

| **Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia** | **Donostiako Udaleko Etxebizitzako eta Hirigintzako zinegotzi ordezkaria** |
|---|---|
| [redacted] | [redacted] |
| **Iñigo Ansola Kareaga** | **Ricardo Burutaran Ferre** |

**Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak, S.A.**

[redacted]

**Enrique Noain Cendoya**

AGUAS DEL AÑARBE
AÑARBEKO URAK, S.A.